

Orain Amurriok gogor salatzen du, EAJ-ko udaleko gobernu taldeak proposatuta, gobernu batzordeak hartutako erabakia energia elektriko hornitzeko, 2020 eta 2021 urtetarako esparru akordioarenganako atxikimenduaren inguruan. "Suministro kontratu desberdinen eraginkortasun handiena eta preziorik onenak lortzeko" argudioa baliatuz eta Arabako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralak bultzatuta.

2017-ko urtarrilean onartutako mozio batean eskatzen zenaren arabera, energia elektriko kontratazio publikorako baldintza pliegoetan, gizarte eta ingurugiroaren inguruko klausuak (100% berriztagarriak) sartzea udal instalazioen ornidurarako. Lantze prozesuan egondako atzerapenak ikusita 2019 eko otsailean beste mozio berri bat aurkeztu genuen gobernu taldea konprometitzeko asmoz, udalaren erabakiekin bat etorrira.

Berriz ere huts egin digute. Gure argudioak kontra bozkatzeko honako hauek dira:

Lehen bizi, administrazioak berak bere osotasunean, aldundia barne, urrun dagoelako legebiltzarrean kontsumo energetikoaren murrizketa, berezko energiak (32%) eta beste neurri batzuen inguruko sostengarritasun energetikoaren legea betetzeaz.

Bigarrenez, Arabako aldundiak gaur egun Lizitazioa irabazi zuen Komerzializatzailearekin daukan kontratuak ez duelako 100% energia berriztagarrien ziurtagiria betetzen (30% soilik). Honek ez luke beteko europako 2012/27/UE direktiba, legalki loteslea dena. Gainera Amurrioko udalak ez luke beteko mozioan onartutako konpromisoa.

Hirugarrenez, ekonomia sozialeko enpresa txikiei kalte egiten dielako bateratutako erosketak. Badago txosten bat "Comision Nacional del Mercado y la Competencia"-rena eta bertan ohartarazten duenez kaltegarria izango litzateke kontratazio bateratua eta aldi berean neurriak proposatuz enpresa hauen sarrera baliatzeko. Honek lagunduko luke Korporazio erraldoiek izaten ohi duten merkatua manipulatzeko maniobrak ekiditzen.

Laugarrenez, Arabako Foru Aldundiak indarrean daukan kontratua sorta bakarrean egin zelako eta 2014/24/UE kontratazio publikoaren inguruko direktibak dionaren arabera nahitaezkoa dela sorta desberdinetan banatzea enpresa txikiei kontratu publikoetara heltzeko erraztasuna bermatzeko.

Bostgarrenez, kaudimen ekonomiko-finanzierorako eskaerek harresia suposatzen dute enpresa txiki hauek lizitazioan sartzeko, eskatzen dieten fakturazio kopuru handiagatik. Sorta horiek bananduko balira, eskatutako kaudimena sorta bakoitzera murriztuko litzateke eta orduan sorta horien lizitazioan parte hartu alhalko lukete.

Azken finean, erabaki honekin, udalaren kudeaketa zuzena galtzen da gainera ez dira ingurugiroaren eta kontratazio publikorako legediak aintzakotzat hartzen. Guzti honengatik ez gatoz bat gobernu batzordeak hartutako erabakiarekin.

Amurrion, 2019 eko apirilaren 5a